

2017ko EKITALDIA - LEHEN SEHILEKOA

IZAPIDETUTAKO ETA ESLEITUTAKO KONTRATAZIO- ESPEDIENTEEI BURUZKO TXOSTENA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko **19/2013 Legean** (2013ko abenduaren 10eko BOE) xedaturikoarekin bat etorriz, zeinaren 8. artikuluan (ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa) ondorengo arautzen den:

“1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:

a) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den –iragarri bada–, prozeduran parte hartu duten lizitatzailleen kopurua, esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak. Kontratuetan atzera egin eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira. Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilean behin argitaratu ahal izango da.

Halaber, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko portzentajea suposatzen duten adierazten duten estatistika-datuak argitaratuko dira”.

Bestalde, **Euskadiko toki-erakundeei** buruzko apirilaren 7ko **2/2016 Legeak** (2016ko apirilaren 14ko BOE) hauxe dio kontratazioari buruz:

55. artikulua. – Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honako hauek dira:

a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaillearen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.

b) Datu estatistikoak, sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.

c) Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ezbetetzeengatik.

d) Suntsiarazitako kontratuen zerrenda. Bereziki, publiko egingo dira kontratuetan atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak.

e) Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.

f) Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko ehunekoa hartzen duten adierazten duten estatistika-datuak argitaratu egingo dira.

Jarraian, EUDELen webguneko kontratzailearen profilean jasota dauden kontratazio-espedienteen estatistika-datu nagusiak ematen dira xeheki.

Ezaugarri nabarmenena da diru-zenbatekoak txikiak izaten direla, **kontratu txikiak ehuneko handi bat hartzen dutelarik**; hala, bada, **5 kontratuk baino ez dute gainditzen 18.000 euro + BEZeko muga**. Datuok beheko koadroan daude ikusgai. Konprometitutako gastuaren kopurua **353.013,79 euro** da guztira.

<u>ESLEITZEKO PROZEDURA</u>	KONTRATU-KOPURUA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA (BEZ barne)	ESLEITUTAKO KOPURUTIK DAGOKION EHUNEKOA	ESLEITZEKO MODUARI DAGOKION EHUNEKOA
PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUA	0	0	%0	%0
PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA	5	200.181,47 €	%56,70	%7,69
KONTRATU TXIKIA	60	152.832,32 €	%43,30	%92,31
PROZEDURA IREKIA	0	0	%0	%0
PROZEDURA MURRIZTUA	0	0	%0	%0
LEHIA-ELKARRIZKETA	0	0	%0	%0
ESPARRU-HITZARMENA	0	0	%0	%0

<u>KONTRATU-MOTA</u>	KONTRATU-KOPURUA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA (BEZ barne)	ESLEITUTAKO KOPURUTIK DAGOKION EHUNEKOA	ESPEDIENTE GUZTIETATIK DAGOKION EHUNEKOA
EMAKIDA	0	0	%0	%0
OBRAK	0	0	%0	%0
ZERBITZUAK	58	331.722,05 €	%93,97	%89,23
HORNIDURAK	7	21.291,74 €	%6,03	%10,77
ALOKATZEAK	0	0	%0	%0

Bigarren koadro honetatik, ondorioztatzen da EUDELen jarduera nagusia **zerbitzuak ematea dela (esleipenen zenbatekoen %93,97)**.

Kontratazioaren arloari dagokionez, lehen seihileko honetako gorabehera handiena 29/2017 espedientean gertatu da; izan ere, enpresa esleipendun batek, bateraezintasunagatik, uko egin zion kontratua betearazteari, 2017ko ekainaren 28ko idazkiaren bidez. Atzera egite horrek ez dio inolako kosturik ekarri Elkarteari, eta, beraz, berriro esleituko da antzeko baldintzetan, baina epeak, baliabideak eta eduki ekonomikoa doituaz.

Horren berri eman da, dagozkion ondorioak izan ditzan.